



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Nafarroa kaleko 5. zenbakian igogailua jartzeko nahitaezko desjabetzea. Ukitutako finkak okupatu Aurreko Aktaren deialdia eta, hala badagokio, Okupazio-Akta.

4029/2024 zenbakia duen Dekretua eman da 2024.eko urriaren 28an. Zera dio Dekretu horrek:

Lehenengoa: Honekin batera doan zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubi-deen onuradunari, jabeai eta gainerako titularrei dei egitea, 2024ko azaroaren 21ean, osteguna, 12:00etan udaletxean, 3. solairuko bilera-gelan ager daitezen, behar izanez gero, lursailera bertara joan daitezen, eta eraginpeko finka okupatu aurreko akta eta, hala badagokio, okupazio-akta egin ditzaten.

Elementua	Azalera (m ²)	Titularra	Jarduera/Okupatzaile
Beheko Eskuineko Lokala	1,85	M. ^a Nieves Miguel Ochoa M. ^a Olga Miguel Ochoa, Jone Rakek Miguel Ochoa	Aktibitatea: Tien 21 Electroconfort Arrendatario: Ernesto Peral Mena
Beheko Ezkerreko Lokala	1,85	Jesús Estenaga Pérez M. Pilar Cabezón Bartolomé	(Aktibitatea: Anboto Taberna) Jabea

Onuradun	
H48743769	Nafarroa 5. zenbakiko jabeen komunitatea

Ukitutakoek berek edo beren izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta joan beharko dute ekitaldi horretara, NANA dutela, eta titulartasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Egoki iritziz gero, perituak eta notarioa ere eraman ahal izango dituzte, beren kontura.

Bigarrena: Erabaki hau interesatuei jakinaraziko zaie eta, laburbilduta, "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da probintziako egunkari zabalduenetako batean eta udal webgunean.

Hirugarrena: Interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte udal honetan, aurretiazko aktak egiteko ezarritako egunera arte, lehenbailehen okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda egiterakoan izan daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Basaurin, 2024ko urriaren 29an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren